

**OGASUN ETA  
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**
**6244**

AGINDUA, 2008ko uztailaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administratzio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan erakunde lagunzaile gisa jarduteko baimen-eskaria ebatzen duena.

2008ko uztailaren 1ean, Marta María Larrad Martínez de Santos andreak (NAN: 16263069-E) Caja de Ahorros y Pensiones de Barcelonaren izenean eta ordez (IFZ: G58899998) baimena eskatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan erakunde lagunzaile gisa jarduteko.

Aplikatu beharreko arautegiarekin bat etorrita, Caja de Ahorros y Pensiones de Barcelonak eskariarekin batera honako hauek aurkezten ditu: erakundeak egindako kobrantzak zentralizatuko lituzkeen bulegoaren helbide eta banku-gakoa. Aldi berean, bi solaskide izendatzen ditu, diru-bilketaren kudeaketari lotutako gaietan laguntzen jardungo dutenak.

Halaber, honako hauek ere aurkeztu ditu erakundeak: lankidetza-zerbitzua emateko erakundeak erabiliko lituzkeen bulego zerrenda; Gizarte Segurantza Diruzaintza Orokorraren eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundien ziurtagiria, zerga guztiak ordainduta edukitzeari buruzkoak; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan lankidetza-zerbitzua arautzen duen Ogasun eta Herri Administratzio sailburuaren 2008ko apirilaren 11ko Aginduaren 9. artikuluan jasotako baldintzak betetzen direla eta agindu horretan ezarritako baldintzetan lankidetza-jarduteko arazorik ez dagoela ziurtatzen duen berariazko adierazpena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan lankidetza-zerbitzua arautzen duen Ogasun eta Herri Administratzio sailburuaren 2008ko apirilaren 11ko Agindua aztertuta, eta kontuan harturik onuragarria dela eskatzaileak diru-bilketaren arloan egin dezakeen ekarpena, erakunde eskatzaileak betetzen ditu lankidetza-jarduteko bete beharreko baldintzak. Hori dela eta, egintza honen bidez, horretarako baimena ematen zaio erakunde horri.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administratzio sailburuak, Ogasun eta Herri Administratzio Sailaren egitura eta egitekoak ezarri zituen otsailaren 28ko 42/2006 Dekretuak esleitutako ahalmenak erabiliz, honako hau

**EBATZI DU:**

Caja de Ahorros y Pensiones de Barcelonari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagu-

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**
**6244**

ORDEN de 30 de julio de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, que resuelve sobre solicitud de autorización para actuar como entidad colaboradora en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco.

D.<sup>a</sup> Marta María Larrad Martínez de Santos, DNI: 16263069-E presento en nombre y representación de Caja de Ahorros y Pensiones de Barcelona, CIF: G58899998, el día 1 de julio de 2008, solicitud de autorización para actuar como entidad colaboradora en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco.

Caja de Ahorros y Pensiones de Barcelona de acuerdo con la normativa de aplicación, aporta, con la solicitud, dirección y clave bancaria de la oficina en la que centralizarían los cobros realizados por la entidad y designados interlocutores con los que tratar todo lo referente a la colaboración en la gestión recaudatoria.

Asimismo aporta relación de oficinas con las que la entidad prestaría el servicio de colaboración, certificaciones de la Tesorería General de la Seguridad Social y las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa de encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, así como declaración expresa de cumplir los requisitos establecidos en el artículo 9 de la Orden de 11 de abril de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, reguladora del servicio de colaboración en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco, y de estar en disposición de prestar el servicio de colaboración en las condiciones establecidas en la misma.

Examinada la Orden de 11 de abril de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, reguladora del servicio de colaboración en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco y teniendo en cuenta que la contribución del solicitante al servicio de colaboración es positiva para la recaudación, resulta que el mismo cumple los requisitos para actuar como entidad colaboradora, por lo que procede autorizar a la misma por medio del presente acto.

En su virtud, la Consejera de Hacienda y Administración Pública en uso de la competencia que tiene atribuida por Decreto 42/2006, de 28 de febrero, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Hacienda y Administración Pública,

**DISPONE:**

Autorizar a Caja de Ahorros y Pensiones de Barcelona para actuar como entidad colaboradora en la

siaren diru-bilketaren kudeaketan erakunde laguntzaile gisa jokatzeko.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du. Haren kontra, aukerako berraztertze-errekursoa jar dakioke egintza hau eman duen organoari; horretarako epea hilabetekoa izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Procedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluetan aurreikusitakoari jarraituz. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko uztailaren 30a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco.

La presente Orden agota la vía administrativa. Contra ella cabe interponer potestativamente recurso de reposición ante el órgano que dicta el presente acto en el plazo de un mes, de acuerdo con lo previsto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común o bien recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, contado desde el día siguiente de la publicación, conforme a lo dispuesto en el artículo 10.1.a) en relación con el 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de julio de 2008.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.